

Ekaineko jangela antolaketa

Ekainaren 1etik 19ra HHko (3 eta 6 urte bitarte) eta LHko ikasleek eskolak goizez bakarrik izango dituzte, alegia, 9:00etatik 12:30era arte.



DBHko ikasleek, ekainaren 1etik 11ra lanaldi jarraia izango dute (8:25-14:30) eta ekainaren 12tik 19ra 8:25etik 12:30era.

Beraz, zuen semeak edo alabak **jangela-zerbitzua erabiliko duen edo ez** jakitea beharrezkoa zaigu. Horretarako, **maiatzaren 13a** baino lehen, mesedez, [galdetegi hau](#) betetzea eskatu nahi dizuegu. **Etxera bakarrik joateko baimena** duen edo ez ere adierazi behar duzue. **Txanda bakar batean bazkalduko dute bazkaldar guztiek**, alegia, 12:30ean.

Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainaren 1etik 19ra eskolak goizez soilik izango dira, 9:00etatik 12:30etara. Horregatik, arratsaldeko zaintza zerbitzua (14:30etik 16:30era) antolatzen ari gara. Zerbitzuak aurrera egin ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da. Zerbitzuaren kostua **93,75 €** izango da gehienez, gutxieneko kopurua osatuz gero. Izena ematen duten haurren kopurua zenbat eta handiagoa izan, prezioa ere jeitsi egingo da.



Horretarako, mesedez [galdetegi hau](#) bete **maiatzaren 15a baino lehen**.

Eskola Kirola 2026-27

Jarraian, datorren **2026-2027 ikasturterako Eskola Kiroleko** izen-emateen inguruko informazio garrantzitsua helarazten dizuegu:

1. Izen-ematea: maiatzaren 14tik 24ra bitartean egongo da zabalik.



- **Zirimara Familian (0-6 urte), Zirimara (6-12 urte) eta Esku Pilota:** [galdetegi hau](#) betez egingo da. Eskaintzaren inguruan informazio gehiago [hemen](#) ikus dezakezu.
- **Futbola, Eskubaloia eta Boleibola:** DBH 1 eta 2ko mailen kasuan, **kluben bitartez** egin beharko da zuzenean, eta ez ikastolatik.

2. Bekak (Zirimara): 2025-2026 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren beka jaso duten familiek **ez dute kuotarik ordaindu beharko Zirimaran**. Hori balioztatzeko, izen-ematearekin batera **Eusko Jaurlaritzako beka agiria atxikitzea** ezinbestekoa izango da.

[Ekintzak, egutegi eta ordutegiak](#)

Herri Urrats 2026

Herri Urrats 2026, Iparraldeko ikastolen jaia, igande honetan ospatuko da Senperen, "Geroa eraikiz" lelopean. Seaskak urtero antolatzen duen ekitaldi honek euskara sustatzea eta eskola berriak eraikitzeko dirua biltzea du helburu, eta kontzertu eta jardueraz betetako jai eguna izango da. [Informazio gehiago...](#)



Familiak eta hizkuntzen atxikimendua

Ikastolen Elkartearen eskutik "Familiak eragile hizkuntzen erabileran" sortako bigarren hitzaldia duzue segidakoa.

Kike Amonarizek **familian euskara sendotzeko arrazoiak eta bideak** aipatu zituen hitzaldi labur honetan.

Udarregiko webgunean aurki dezakezue; [hemen](#).

Baliagarri izan dakizuela!



Euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubideen alde

Euskaraz bizitzeko eskubidearen aurkako oldarraldi judizial, politiko eta sindikalaren aurrean, ELAk, LABek eta Steilasek manifestaziora deitu dute euskararen eta gaztelaniaren estatus juridikoa parekatzea exijitzeko maiatzaren 9an, arratsaldeko 17:30etan Jesusen Bihotzean (Bilbo).

[Informazio gehiago...](#)



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 3 eta HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Baso eskola jantziak

Maiatzeko errezi-boekin batera, baso-eskolako jantzien erabileragatik **5 €** kobratuko direla jakinarazten da.



EUSFERA, unibertso euskaldunagoa gure haurrentzat

Eusfera gure hurren ingurua, unibertsoa, euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da. Taupa euskaltzaleen elkarteak antolatu du eta maiatzaren 7-17 bitartean izango da.

Baliabide eta tresna askotarikoak eskaintzen dituzte jada norabide horretan dabilzan familientzat; horretan hasi nahi duten familientzat, berriz, abiapuntua.

Euskaraz jakin ala ez, 0-12 urte bitarteko hurren gurasoei (edo guraso rola betetzen duten helduei) dago zuzendua. Gurasoekin elkarlanean, gure etxeko haur eta gaztetxoen atmosferan euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea da helburua. Etxekoekin gauzatzeko moduko proposamenak, MISIOAK, proposatzen dituzte [“gurasoen txokoa”](#) atalean.



LEHEN HEZKUNTZA

Baso eskola jantziak

LH1., LH2. eta LH3. mailako ikasleei, maiatzeko erreziboekin batera, baso-eskolako jantzien erabileragatik **5€** kobratuko zaizkiela jakinarazten da.



LH1: Arotz-eneako irteeraren kobrantza

Jakinarazten dizuegu datorren ekainaren 10-11an LH 2koekin batera burutuko dugun lotarako irteeraren lehen zatia **kobrantza (50€)** egingo zaizuela **datorren astean**.

Irteera honen kostua egonaldiak (65€) eta autobusak (13,15€) osatuko dute eta ordaintzeko geldituko den zatia ekainean kobratuko da.



LH5: egun pasa Usurbilen

Aurten ere, iaz Debara egindako irteeraren arrakastaren ondoren, harremanak sendotzen eta euskalkiak ezagutzen jarraitzeko asmoz, elkartruke berri bat antolatu dugu. Oraingoan, **Ondarroako Zubi Zahar ikastolako ikasleak Usurbilera etorriko dira.**



Bisita honen helburu nagusia gure ondare kulturala ezagutzea, elkar ezagutzea eta hizkuntza-aberastasuna partekatzea da.

- **Eguna:** Maiatzaren 14a
- **Ordua:** 09:00
- **Tokia:** Ikastolako sarrera

Zer eraman behar dute?

Ikasleek egun-pasako materiala ekarri beharko dute motxilan:

- **Hamaiketakoa.**
- **Bazkaria**
- Arropa, oinetako erosoak, eta ur-botila bat.

Ikastola eguneko bazkariaren antolaketa

Ikastola eguneko bazkaria antolatzeko lehenengo bilera egin zen pasa den astelehenean LH5 eta LH6ko gurasoekin, baina lantalde askotan arduradunak osatzea falta da oraindik:



- TXARTELAK lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- OSTALARIEKIN KOORDINAZIO lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- ESKAERAK lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- KROKISA lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- ZERBITZARIAK lantaldea (LH5eko arduradun bat)
- KAFEA lantaldea (LH5eko arduradun bat)

Oraindik lantaldereen batean izena eman ez baduzu eta arduradun lanetan aritzeko prest bazaude, tutoreekin jarri harremanetan. Animatu!

Zorriak



LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA

EUSFERA, unibertso euskaldunagoa gure haurrentzat

Eusfera gure haurren ingurua, unibertsoa, euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da. *Taupa euskaltzaleen elkarteak* antolatu du eta maiatzaren 7-17 bitartean izango da.

Baliabide eta tresna askotarikoak eskaintzen dituzte jada norabide horretan dabiltzan familientzat; horretan hasi nahi duten familientzat, berriz, abiapuntua.

Euskaraz jakin ala ez, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei (edo guraso rola betetzen duten helduei) dago zuzendua. Gurasoekin elkarlanean, gure etxeko haur eta gaztetxoan atmosferan euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea da helburua. Etxekoekin gauzatzeko moduko proposamenak, MISIOAK, proposatzen dituzte ["gurasoen txokoa"](#) atalean.



Ipuin kontaketa

Maiatzaren 11ean, astelehenarekin, Sutegi Liburutegian, 18:00etan, IPUIN KONTAKETA saioa, Mireia Delgadoren eskutik, 6 urtetik gorako haurrentzat (LH1-LH3).

Iraupena: ordu bete inguru. [Horma-irudia](#)



BIGARREN HEZKUNTZA

Ez dago berririk.